

Iñaki Zubeldia

IDAZLEA

Hizkuntza ereduaren dantza

Euskaldunon bigunkeriak ez du parekorik inguruko otsoen artean. Gure hizkuntza defendatzeko egin beharreko ahaleginei buruz ari naiz. Duela gutxi, B eredu deskafeinatu bat aipatu izan da, giza-taldeen desberdintasuna gogora ekarriz. Iparraldean, Errepublikaren izenean, euskara zapaldu izan da Frantziako Iraultzatik gaur arte, inongo lotsa eta begirunerik gabe. Nafarroan ere antzeko zerbait, euskara desagertzeko ahalegin maltzur eta zitalak egin dira eta egiten dira oraindik. Eta beste probintzietan zer pairatu dugu XX. mende osoan?

Euskararen zapalkuntza izugarria, ezer ulertzen ez zuten 5 eta 6 urteko umeen aurrean ere maisu erdaldunak ezarriz. Gaur egun, Espainiako Estatu-tuko konstituzioak gaztelania jakitera behartzen gaitu euskaldunak. Baina Euskal Herriak ezin du inor behartu bere eremuan euskara jakitera. Eta horrela gabiltza, bigunkeriaren gaitzak jota, euskararen ezagutzan eta erabileran aurrerapauso nabarmenik eman ezinik.

Egia da euskarak aurrera egin duela irakaskuntzan, hizkuntzaren ezagutza maila apal bat ikasle askorengana iritsi dela, baina Atxagak zioen bezala oso euskara mehea entzuten da ikasle askoren ahotan, edozein gai sinpleri buruz hitz egiten hasi eta berehala “krak” egiten duena.



DANI BLANCO

Eta orain ezin dugu atzera egin hizkuntza ereduaren alorrean. Garbi dago B eta A ereduak ez dutela lortu ikasle guztiak euskalduntzea, eta ez naiz ari gai zientifikoak euskaraz ulertzeaz eta ikasteaz, elkarrizketa xume batean euskaraz egiteko gaitasunaz baizik. Horrek garbi erakusten du orain arteko sistemak ez duela balio izan legeak berak aurreikusten zuenerako ere, hau da, derrigorrezko hezkuntza bukatzean ikasle guztiak bi hizkuntzak modu normalizatu batean hitz egiteko. Beraz, beste sistema eraginkorrago bat bilatu beharko dugu.

Hasteko, hizkuntzak ikasteko erraztasunik handiena 0-3 urte bitarteko etapa horretan izaten omen dute haurrek eta 5-6 urtera bitarte ere bai. Saia gaitzen adin horietako irakasleak euskal hiztunik onenak, trebeenak, goxoenak, haurren psikologia ezagutzen dutenak izan daitezken. Horrez gain, presta ditzagun material bereziak, programa mailakatuak, sistema audiobisual eraginkorrak, hizkuntza modu natural errazean transmititzeko.

Bestalde, eskolaz kanpo ere, sortu beharko dira, bereziki zona ez euskaldunetan, aisialdirako talde euskaldun erakargarriak, begirale trebeekin, eskolatik kanpoko jardueretara ere hizkuntza heda dadin eta kalean ere poliki-poliki euskal giroa txertatzen joan dadin. ■

« Euskal Herriak ezin du inor behartu bere eremuan euskara jakitera. Eta horrela gabiltza, bigunkeriaren gaitzak jota, euskararen ezagutzan eta erabileran aurrerapauso nabarmenik eman ezinik »

TXANDAN

Edu Zelaieta

Ur gazia



Bigarren aldia dut Marokon. Aurrekoan, Gasteizen bizi diren marokoar batzuek gonbidatu gintuzten ezkontza batera. Orduan, iparraldeko zenbait toki eta jende ezagutzeko aukera ederra izan genuen bertakoen eskutik: Tanger, Tetuan, Xauen... Eguneroko gauzak beste begi batzuek ikusten ditugula ohartu ginen argi eta garbi. Hain hurbil, hain urrun.

Zorte onekoa izan naiz berriro, lehen hiru egunak bertakoa den Saoussanerekin igaro baititugu Casablancan eta Rabaten. Bitxia eta interesgarria izaten da etxe eta ia une

berean frantsesez, euskaraz, arabieraz eta ingelesez ibiltzea. Lastima nire ingelesa horren motza izatea eta frantsesez apenas ulertzea. Alabaina, elkarren berri emateko moldatzen gara.

Joxek eta biok ekarritako liburuen artean Koldo Izagirreren *Rimmel* poemategia badugunez, euskarazko pasaportea utzi dugu mahai gainean gure hizkuntzak zer itxura duen ikus dezaten. Saoussane, orduan, *Ur gazia zura* atalean geratu da euskaldunok nola ahoskatzen dugun jakinminez. Asmo didaktikoz betetako ordaina eskaini nahi izan diot nik. Geroxeago konturatu naiz Espainiako ZARAZ ari zela. Hain hurbil, hain urrun. ■